

# 2019 Jarduketa-plan eragilea

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana 2018-2021

4. #gazteplana#  
EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EMPLEGUKO ETA GZARTE  
POLITIKETAKO SAIA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES





# Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Eusko Jaurlaritzaren bestelako plan eta estrategiekiko lerrokatzea eta sinergiak	8
<b>2.1. IV. Gazte Planak beste plan estrategiko batzuekin duen lotura</b>	8
<b>2.2. IV. Gazte Planaren koherentzia Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-estrategiarekin</b>	10
<b>2.3. IV. Gazte Planak Garapen Jasangarriko Helburuei erantzutea. 2030 Agendako jomugekin lerrokatzea</b>	10
3. Euskadiko gazteria 2019	18
4. 2019ko Jarduketa Plan Operatiboa	30
5. Eranskina: Berdintasunaren arloko koherentziari buruzko txostenak	66
<b>5.1. Emakunderen txostena</b>	67
<b>5.2. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren Berdintasun Unitateak emandako txostena</b>	68
6. Eranskina: IV. Gazte Planaren sinergia-matrizea	70

# #01

## Sarrera



# 1. Sarrera

## Aurrekariak eta testuingurua

2018ko urtarrilaren 30ean, Eusko Jaurlaritzaren bilkuran IV. Gazte Plana onetsi zen, administrazio honek 2018-2021 aldirako gazteriaren arloan izan beharreko erreferentziatzko tresna gisa.

2018-2021 aldirako IV. Gazte Plana erakunde honek gazteekin duen jardunaren eta konpromisoaren jarraipena da, eta gazteen emantzipazioaren alde lan egiteko helburu nagusia du, bizitza-proiektuak eraiki eta gauzatu ahal izan ditzaten, eta, aldi berean, proiektu kolektiboetan parte hartzeko gaitasuna gara dezaten.

Horretarako, egituraren eta osaketaren ikuspegitik, Planak guztira 5 ardatz estrategiko, 10 arlo, 23 helburu eta 60 ildo estrategiko ditu; horiek jarduketa zehatzetan zehazten dira urtean behin, Planean parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzek egindako urteko plan operatiboaren bidez.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana «III. Gazte Plana 2020ren Marko Orokorrekin» lerratuta dago. Azken horretan, beharrak, lehentasunezko erronkak, helburu estrategikoak eta esku-hartze ildoak zehazten dira, epe ertainerako, hots, 2020rako. Marko horren helburu nagusia honako hau da: politika publiko horien rola handiagotzea, gazteek, etorkizuneko gizartearen oinarri gisa, benetako aukera-berdintasuna eta beren bizitza modu autonomoan eta librean garatzeko gaitasuna izatea lortzeari begira.

Horrenbestez, 2019. urtea hasi zenean, urteko programazio horren finkapenari heldu zitzaion, Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza bakoitzak egin beharreko hausnarketa gisa, bertan ezartzen direla egin beharreko jarduketak, bideratuko den aurrekontua, eta ekitaldiko jarduketa bakoitzerako ebaluazio-adierazleak eta lortu beharreko helburu- edo jomuga-balioa, 2019a amaitu ondoren haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko aukera egon dadin.

Dokumentu honek urteko plan operatibo horren xehetasuna biltzen du, Eusko Jaurlaritzaren barnean plan operatibo hori gauzatzeko ardura zer zuzendaritzak izango duten ezarrita eta 2018an finkatutako programazioarekin duen jarraipen-maila aztertuta (txertatutako ekintza berrien bolumena).

Sarrera gisa, lehenengo atalean honako honetan jartzen da arreta: IV. Gazte Planak zer sinergia-maila duen edo zer neurritan datorren bat Eusko Jaurlaritzaren barnean sustatutako gainerako plan estrategiko edo ekimenekin. IV. Gazte Plana indarrean jarri zenez geroztik onetsitako estrategiak identifikatu dira, eta plan horren dokumentu programatikoa barne hartutako erlazio-matrizea eguneratu egin da. Orobat, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planak Garapen Jasangarriko Helburuekin –GJHeekin– duen lotura ere berrikusi egin da.

2019ko programazio hori finkatzen den unea testuinguruan ipintzeko, Gazteen Euskal Behatokiak –Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzaren mendeko erakundeak– egindako egoera-txostenaren laburpen bat txertatu da.

Azken batean, bi eranskin aurkezten dira, honako eduki honekin:

- *Berdintasunaren arloko koherentziari buruzko txostenak*: IV. Gazte Planak eta 2019. urteko programazioak Eusko Jaurlaritzaren berdintasunaren arloko estrategiekin duten koherentzia berresteko Emakundek eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Berdintasun Unitateak emandako txostenak aurkezten dira.

- *IV. Gazte Planaren sinergia-matrizea:* Eusko Jaurlaritzak abiarazi dituen eta 2021era arte indarrean izango diren programa eta estrategia guztien analisi xehatu eta eguneratua biltzen du, baita IV. Gazte Planarekin partekatutako helburu eta ildo estrategikoeikiko lotura ere.

# #02

## **Eusko Jaurlaritzaren bestelako plan eta estrategiekiko lerrokatzea eta sinergiak**





## 2. Eusko Jaurlaritzaren bestelako plan eta estrategiekiko lerrokatzea eta sinergiak

### 2.1. IV. Gazte Planak beste plan estrategiko batzuekin duen lotura

IV. Gazte Plana onetsi eta indarrean jarri zenez gerotik, Eusko Jaurlaritzak estrategia batzuk onartu ditu, eta horregatik, IV. Gazte Planaren eta Eusko Jaurlaritzaren plan eta estrategia multzoaren arteko konbergentzia-matrizea eguneratu egin behar da ezinbestean.

IV. Gazte Plana honako plan eta ekimen hauekin lerrokatzen da lehentasunez:

- XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa (2016-2020)
- Euskadiko 2020 Erakundearteko Ekintzailletza Plana
- Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana XI. legegintzaldirako (2018-2021)
- Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020
- Euskal Estatistika Plana 2018-2021
- 2017-2020 Enplegua eta Ekonomia Suspertzeko Esparru Programa
- Estrategia eta ekintza-plan eragilea Euskadin soldata-arrakala murrizteko
- Enpleguaren Euskal Estrategia 2020
- 2017-2020 aldirako Enplegu Plan Estrategikoa
- 2015-2020rako Laneko segurtasun eta osasunerako Euskal Estrategia
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2020 (ZTBP)
- Euskadirako Osasun-politikak, 2013-2020
- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte-Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019
- 2014-2018 Kontsumobideko Plan Estrategikoa
- IV. Gizarteratzeko Euskal Plana 2017-2021
- EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza-Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)
- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020
- 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana
- Euskadi 2020 Mugikortasun Jasangarriaren Plan Gidaria
- Garapenerako Lankidetzaren 2018-2021 aldirako IV. Gida Plana
- Hezkuntza-sisteman genero-indarkeriari aurrea hartzeko eta baterako hezkuntza lantzeko Plan Zuzentzailea
- IV. Unibertsitate Plana 2015-2018
- Adikzioen VII. Plana 2017-2021
- 2016-2020ko Eskola Inklusiboaren eta Kultura Artekoaren Eremuan Ikasle Etorquinenei Hezkuntza-arreta Emateko II. Plana
- Hezkuntza-sistema Hobetzeko Heziberri 2020 Plana
- Gizarte-eraldaketarako Hezkuntza Estrategia, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarena

- Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza Programa Osagarria (2017-2020)
- Mugiment 2020 Programa, jarduera fisikoa areagotzeko eta sedentarismoa murrizteko

Beheko koadroan Eusko Jaurlaritzak abiarazitako planen eta ekimenen arteko sinergia estrategikoak bildu bira; IV. Gazte Plana osatzen duten 10 jarduketa-arloekin identifikatuta. Kolore-sortak bien arteko sinergia-maila irudikatzen du; beste modu batean esanda: zenbat eta handiagoa izan programaren eta arloaren arteko lotura, orduan eta biziagoa izango da irudikatzen duen kolorea. Horrenbestez:

- Tonu laranja adierazten du elkarren artean oso lotuta daudela, bi planek estrategia berbera dutela euren ardatzetatik eta, horrenbestez, IV. Gazte Planak estrategia babeslearen rola duela gazteen kolektiborako.
- Tonu horiak, bestalde, tarteko kointzidentzia dagoela ematen du aditzera; hala, helburu estrategiko komunak daude IV. Gazte Planaren eta aztertutako plan estrategikoaren artean.
- Tonu berdeak aditzera ematen du elkarren arteko lotura txikiagoa dela eta ildo estrategikoen eta jarduketan mailan daudela lotuta bereziki.
- Zuriz dauden tarteen kasuan, jarduketa-esparru jakin baterako ez dago ez sinergiarik ez bat-etortzerik.

Planes GOVA Vigentes 2017-2020	EJE 1: Emancipación y Autonomía			EJE 2: Bienestar y Salud	EJE 3: Igualdad e Acción Social	EJE 4: Participación y Compromiso Social		EJE 5: Socialización		
	Empleo	Vivienda	Educación			Participación	Consumo	Cultura	Ocio	Deporte
Programa de Gobierno XI (2016-2020)										
Políticas de Salud para Euskadi 2013-2020										
VII Plan de Adicciones 2017 - 2021										
Plan Director de Vivienda 2018-2020										
II Plan de Atención Educativa al Alumnado Inmigrante en el Marco de la Escuela Inclusiva e Intercultural 2016-2020										
IV Plan Universitario 2015-2018										
Heziberri 2020										
Estrategia Vasca de la Seguridad y Salud en el trabajo 2015-2020										
Plan Estratégico de Empleo 2017-2020										
Estrategia Vasca de Empleo 2020										
Plan Interinstitucional de Emprendimiento de Euskadi 2020										
Programa Marco por el Empleo y la Reactivación Económica 2017 - 2020										
Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017 - 2020										
Plan Estratégico de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2016-2019										
Programa Complementario de Educación en Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación 2017 - 2020										
Plan Estratégico de Kontsumobide 2014-2018										
Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación (PCTI) 2020										
Plan Director de Movilidad Sostenible 2020										
Programa Mugiment 2020										
Estrategia y Plan Operativo de Acción para reducir la Brecha Salarial en Euskadi										
IV Plan Vasco de Inclusión 2017-2021										
IV Plan Director de Cooperación al Desarrollo 2018-2021										
Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020										
Plan de Acción de Educación para la Transformación Social de la AVCD										
VII Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres para la XI Legislatura (2018-2021)										
II Plan de coeducación para el sistema educativo vasco, en el camino hacia la igualdad y el buen trato (2019-2023)										
Plan Heziberri 2020, para la mejora del sistema educativo										
Plan Director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo										
IV Plan Interinstitucional de apoyo a las familias de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el período 2018-2022										
Plan Vasco de Estadística 2018-2021										

II. eranskinean programa eta estrategia horien analisi xehatua ikus dezakegu, baita IV. Gazte Planarekin dituzten helburu eta ildo estrategiko komunak ere.

## **2.2. IV. Gazte Planaren koherentzia Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-estrategiarekin**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 4. artikuluan xedatzen duenez, «Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten». Honako hau da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika, eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.

Horregatik, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren garapenean parte hartu du, plan hori Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-estrategiaren helburuekin lerrokatuta egotea lortzeko helburu nagusiarekin; XI. legegintzaldirako (2018-2021) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren bidez hezurramitzen da EJren berdintasun-estrategia.

Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzako Berdintasun Unitateak IV. Gazte Plana eta 2019. urteko jarduketa-plan operatibo hau Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-estrategiarekin koherenteak direla berresten duten bi txosten egin dituzte. Orobat, Emakundek partaidetza aktiboa du Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren ezarpen operatiboan, Euskadiko Gazte Planaren Sailen Arteko Batzordean baitago, baita haren ordezkartza teknikoan ere.

## **2.3. IV. Gazte Planak Garapen Jasangarriko Helburuei erantzutea. 2030 Agendako jomugekin lerrokatzea**

IV. Gazte Plana Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta dago eta 17 helburuetatik 11tan ekarpenak egiten ditu. Horien artean, bereziki, kalitatezko hezkuntza, lan duina eta hazkunde ekonomikoa eta gizarte-desparekotasunen murrizketa nabarmentzen dira, helburu eta xede komunak kopurua handia delako.

Ondoren, Planak zuzeneko lotura duen GJHak bildu dira, Nazio Batuen Erakundeak horiei emandako definizioaz eta lotura zuzenena duten jomugez gain:



Pobreziak hainbat motatako agerpenak izan ditzake, hala nola gosea, malnutrizioa, etxebizitza duin baterako sarbiderik ez izatea, eta oinarriko beste zerbitzu batzuk –kasu baterako, hezkuntza edo osasuna– eskuratzeko aukera txikiak. Diskriminazioa eta gizarte-bazterkeria ere agertzen dira. Pobrezia desagerrarazteko helburu hori lortzeko, hazkunde ekonomikoak inklusiboa izan behar du, lanpostu jasangarriak sortzeko eta berdintasuna sustatzeko.

*Zer jomugarekin dagoen lotuta*

- 1.2 2030erako, gutxienez erdiraino murriztea pobrezia dimentsio guztietan pairatzen duten adin guztietako gizonen, emakumeen eta haurren proportzioa, definizio nazionaleraino jarraikiz.

- 1.3 Nazio- mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, hemendik 2030era, pertsona pobre eta ahulen babes zabala lortzea.
- 1.5 Hemendik 2030era arte, pobreen eta ahultasun- egoeretan dauden pertsonen erresilientzia sustatzea eta klimarekin eta beste asaldura eta hondamen ekonomiko, sozial eta ingurumeneko batzuekin lotutako muturreko fenomenoaren eraginpean egotea eta ondoriozko ahultasuna murriztea.
- 1.b Nazio- , eskualde- eta nazioarte- mailan araudi- esparru sendoak sortzea, pobreen aldeko garapen- estrategien oinarriaren gainean, genero- kontuak aintzat hartzen dituztenak, pobrezia desagerrarazteko neurrietan inbertsio bizkortua bultzatzeko.



Elikagaigintzak eta nekazaritzak funtsezko konponbideak eman ditzakete garapenerako, eta oinarritzakoak dira gosea eta pobrezia ezabatzeko. Behar bezala gauzatzen badira, nekazaritzak, basogintzak eta akuikulturak jaki nutritiboak eman ditzakete planeta osoko biztanle guztientzat, diru-sarrerara nahikoak sortzeaz, landa-eremuetako pertsoneri garatzen laguntzeaz eta ingurumena babesteaz gain.

#### *Zer jomugarekin dagoen lotuta*

---

- 2.1 Hemendik 2030era, gosea desagerraraztea eta pertsona guztiek, bereziki pobreek eta ahultasun-egoeran dauden pertsonak, bularreko haurrak barne, urte osoan elikadura osasuntsua, nutritiboa eta nahikoa eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea.
- 2.2 Hemendik 2030era, malnutrizioaren modu guztiak deuseztatzea, eta beranduenez 2025ean, nazioartean hazkundearen atzerapenaren eta 5 urtetik beherako haurren ahultasunaren gainean hitzartutako erronkak lortzea, nerabeen, haurdunen eta bular-emaeleen eta adineko pertsonen nutrizio-beharrei erantzutea.



Azken hamarkadetan, aurrerakada handiak lortu dira bizi-itzaropena handitzeari eta haurren eta amen heriotza-tasarekin loturiko heriotza-kausetako batzuk murrizteari dagokionez. Halaber, hobekuntzak lortu dira ur garbirako eta saneamendurako sarbidean, malariaren, tuberkulosiaren eta poliomielitisaren murrizketan eta GIB/hiesaren zabalkundean. Alabaina, askoz ere ekimen gehiago behar dira gaixotasun ugari erabat desagerrarazteko eta osasunarekin lotutako askotariko arazo iraunkor eta larri askori aurre egiteko.

#### *Zer jomugarekin dagoen lotuta*

---

- 3.3 Hemendik 2030era, hiesaren, tuberkulosiaren eta malariaren izurriak eta aintzat hartu ez diren beste gaixotasun tropikal batzuek desagerraraztea eta hepatitisari, uraren bidez transmititutako gaixotasunei eta transmiti daitezkeen beste gaixotasun batzuei aurre egitea.
- 3.4 Hemendik 2030era, heren batera murriztea transmititu ezin diren gaixotasunen ondoriozko heriotza goiztiarraren tasa, prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea.
- 3.5 Mendekotasuna sortzen duten substantzien prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupefazianteen erabilera desegokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne.
- 3.6 Hemendik 2020ra, erdira murriztea munduan trafiko-istripuen ondorioz eragindako heriotzen eta lesioen kopurua.

- 3.7 Hemendik 2030era, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, familia-plangintzakoak, informaziokoak eta hezkuntzakoak barne, eta ugalketa-osasuna sartzeko estrategia eta programa nazionaletan.
- 3.a Osasunaren Mundu Erakundearen Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren aplikazioa indartzea herrialde guztietan, dagokionaren arabera.



Kalitatezko hezkuntza bat lortzea da pertsonen bizitza hobetzeko eta garapen jasangarrirako oinarria. Aurrerapauso esanguratsuak eman dira maila guztietan hezkuntzarako sarbidea izateko aukera hobetzeari eta ikastetxeetan eskolatzeko-tasak handiagotzeari dagokionez, batik bat, emakumei eta neskatoei gagozkiela. Hein handi batean igo da gutxieneko alfabetatze-maila, nahiz eta oraindik ere beharrezkoa den hezkuntza unibertsalarekin lotutako helburuak lortzeko bidean aurrerakada handiagoak erdiesteko ahaleginak emendatzea. Adibidez, lehen hezkuntzan mutikoen eta neskatuen arteko berdintasuna lortu da munduan, baina herrialde gutxiak lortu dute helburu hori hezkuntza-maila guztietan.

#### *Zer jomugarekin dagoen lotuta*

- 4.1 Hemendik 2030era, haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza amaitzen dutela ziurtatzea; doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izan behar du, eta ikaskuntza-emaizta egokiak eta eraginkorrak ekarri behar ditu.
- 4.2 Hemendik 2030era, haur guztiek lehen haurtzaroan eta eskolaurreko hezkuntzan arretarako eta garapenerako kalitatezko zerbitzuak eskura ditzaketela ziurtatzea, lehen hezkuntzarako prest egon daitezen.
- 4.3 Hemendik 2030era, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi-mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela ziurtatzea, unibertsitate-irakaskuntza barne.
- 4.4 Hemendik 2030era, nabarmen areagotzea enplegua eta lan duina eskuratzeko eta ekintzailtzarako beharrezko gaitasunak –batez ere teknikoak eta lanbidekoak– dituzten gazte eta helduen kopurua.
- 4.5 Hemendik 2030era, genero-desberdintasunak ezabatzea hezkuntzan, eta berdintasunean oinarritzen den sarbidea ematea irakaskuntzako maila guztietan eta lanbide-prestakuntzan pertsona ahulenei, desgaitasunen bat duten pertsonari, herri indigenei eta ahultasun-egoeran dauden haurrei barne.
- 4.6 Hemendik 2030era, gazte guztiak eta helduen proportzio handi bat, bai gizonak bai emakumeak, alfabetatuta daudela eta aritmetikako oinarritzko ezagutzak dituztela ziurtatzea.
- 4.7 Hemendik 2030era, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizi-estilo jasangarrietarako, giza eskubideetarako, genero-berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapenerako, munduko herritartasunerako eta kultura-aniztasunaren baloraziorako eta kulturak garapen jasangarriari laguntzeko, hezkuntzaren bidez.
- 4.a Haurren eta desgaitasunen bat duten pertsonen beharrak eta genero-desberdintasunak kontuan dituzten eta ikaskuntza-ingurune seguruak, indarkeriarik gabeak, inklusiboak eta guztiontzako eraginkorrak eskaintzen dituzten hezkuntzako instalazioak eraikitzea eta egokitzea.
- 4.b Hemendik 2020ra, nabarmen areagotzea, mundu-mailan, garapen-bidean dauden herrialdeetarako eskuragarri dauden beken kopurua, zehazki, aurrerapen txikieneko herrialdeetarako, garapen-bidean dauden uharte-estatuetarako eta Afrikako

herrialdeetarako dauden bekenak, bertako ikasleak herrialde garatuetako edo garapen-bidean dauden beste herrialde batzuetako goi-mailako irakaskuntzako programetan matrikulatu ahal izateko, lanbide-prestakuntzako programak eta programa teknikoak, zientifikoak, ingeniarietakoak eta informazioaren eta komunikazioen teknologiar buruzkoak barne.



Generoen arteko berdintasuna, funtsezko giza eskubidea ez ezik, mundu baketsua, oparoa eta jasangarria erdiesteko behar den oinarria ere bada. Emakumeei eta neskatoei hezkuntzarako eta arreta medikorako sarbidean berdintasuna eman, lan duin bat eskaini eta erabaki politikoak eta ekonomikoak hartzeko prozesuetan ordezkaritza errazten bazaie, ekonomia jasangarriak sustatuko dira, gizarteari eta oro har gizadiari mesede egingo zaie.

#### *Zer jomugarekin dagoen lotuta*

- 5.1 Mundu guztian emakume eta neskatoen aurkako diskriminazio-modu guztiak desagerraraztea.
- 5.2 Emakume eta neskatu guztien aurkako indarkeria-modu guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta -esplotazioa eta beste mota batzuetako esplotazioak barne.
- 5.4 Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera.
- 5.6 Sexu- eta ugalketa-osasunerako sarbide unibertsala ziurtatzea, bai eta ugalketa eskubideak ere, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren Ekintza Programarekin, Pekineko Ekintza Plataformarekin eta aztertze konferentzien azken dokumentuei jarraikiz adostutakoaren arabera.
- 5.a Emakumeei baliabide ekonomikoetarako eskubide-berdintasuna eta lurraren jabetza eta kontrolerako eta ondasunak, finantza-zerbitzuak, herentzia eta natura-baliabideak eduki ahal izateko eskubide-berdintasuna ematen dieten erreformei ekitea, lege nazionalari jarraikiz.
- 5.b Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiarena, emakumeen ahalduntzea sustatzeko.
- 5.c Politika zuzenak eta genero-berdintasuna sustatzeko lege aplikagarriak onestea eta indartzea, emakume eta neskatu guztien genero-berdintasuna eta ahalduntzea sustatzeko, maila guztietan.



Lan duinerako etengabeko aukera-faltak, inbertsioa behar adinakoa ez izateak eta kontsumo baxuak urradura sortzen du gizarte demokratikoen azpian dagoen oinarritzko kontratu sozialean: aurrerabidea pertsona guztien artean partekatzeko eskubidea. Garapen ekonomiko jasangarria lortzeko, gizarteek pertsonentzako beharrezko kondizioak sortu beharko dituzte, kalitatezko lanpostuak eskuratzeko aukera izan ditzaten, betiere ekonomia piztuta baina ingurumena kaltetu gabe. Gainera, lan egiteko adina duten pertsona guztientzako lan-aukerak ere finkatu beharko dira, betiere lan-kondizioak egokiak izanik.

#### *Zer jomugarekin dagoen lotuta*

- 8.3 Garapenera bideratutako politikak sustatzea, honako alderdi hauei babesa emango dietenak: ekoizpen-jarduerak, lanpostu egokien sorrera, ekintzailtza, sormena eta berrikuntza; eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatzea, baina finantza-zerbitzuak eskuratzearen bidez ere.

- 8.5 Hemendik 2030era, enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea.
- 8.6 Hemendik 2020ra, nabarmen murriztea enplegurik ez duten eta ikasten edo gaitzen ari ez diren gazteen proportzioa.
- 8.7 Berehalako neurri eraginkorrak hartzea lan derrigortua desagerrarazteko, amaiera ematea egungo esklabotasun-moduei eta pertsonen salerosketari, eta haurren lanaren forma okerrenak (haurrak gerrarako errekrutatzea eta haur soldaduak barne) debekatu eta kenduko direla bermatzea; halaber, hemendik 2025era, buru ematea haurren lanari, haren forma guztietan.
- 8.8 Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea langile guztientzat, migratzaileak barne, eta bereziki, emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituztenen pertsonentzat.
- 8.b Hemendik 2020ra, gazteek enplegua lortzeko munduko estrategia bat garatzea eta martxan jartzea, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Enplegurako Munduko Ituna aplikatzea.



Herrialdeen artean diru-sarreraren desparekotasuna txikiagotu ahal izan bada ere, herrialdeen barneko desparekotasunek gora egin dute. Gero eta adostasun handiagoa dago hazkunde ekonomikoa pobrezia murrizteko nahikoa ez delako eta hazkunde ekonomikoak inklusiboa izan eta garapen jasangarriaren hiru dimentsioak –ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa– kontuan izan behar dituelako ideiarekin. Desparekotasuna murrizte aldera, biztanleria pobre eta marjinatuen premiei bereziki erreparatzen dieten politika unibertsalak aplikatzea gomendatu da.

#### *Zer jomugarekin dagoen lotuta*

---

- 10.2 Hemendik 2030era, pertsona guztien inklusio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea eta sustatzea, adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edonolakoa izanda ere.
- 10.3 Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, baita horretarako diskriminaziozko legeak, politikak eta praktikak kendu egin behar badira ere, alde horretatik egokiak diren legeak, politikak eta neurriak ezartzeko.
- 10.4 Politikak –bereziki, zergei, soldatei eta gizarte babesari lotutakoak– ezartzea, eta pixkanaka gero eta berdintasun handiagoa lortzea.



Arazo ugari daude hirietan enpleguak eta aurrerabidea sortzen jarraitzeko eta aldi berean lurrari eta baliabideei presiorik ez eragiteko. Hirien arazo komunak hauek dira: metaketa; oinarrizko zerbitzuak emateko funtsen gabezia; etxebizitza egokiaren eskasia; eta azpiegituraren narriadura.

#### *Zer jomugarekin dagoen lotuta*

---

- 11.1 Hemendik 2030era, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea.
- 11.2 Hemendik 2030era, pertsona guztientzako garraio sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea, batez ere, garraio publikoa areagotuz eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen, emakumeen, haurren, desgaitasunen bat dutenen eta adineko pertsonen beharrei arreta berezia eskainiz.
- 11.7 Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat.



Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak honako hauetan dautza: baliabideen erabilera efizientea eta efizientzia energetikoa sustatzea, azpiegitura jasangarriak piztea, eta guztiontzako oinarrizko zerbitzuetarako eta lanpostu ekologiko eta duinetarako sarbidea faboratzea eta bizi-kalitatea erraztea. Halakoen aplikazioa lagungarria da garapen-plan orokorrak lortzeko, etorkizunean kostuak – ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak– murrizteko, lehiakortasun ekonomikoa handiagotzeko eta pobrezia murrizteko.

#### Zer jomugarekin dagoen lotuta

---

- 12.2 Hemendik 2030era, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra egin dadila lortzea.
- 12.3 Hemendik 2030era, munduan, txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean alferrik galtzen diren *per capita* elikagaien kopurua erdira murriztea, eta elikagai-galerak txikiagotzea ekoizpen- eta horniketa-kateetan, uztaren ondorengo galerak barne.
- 12.5 Hemendik 2030era, nabarmen murriztea hondakinen sorrera, prebentzioko, murrizketako, birziklapeneko eta berrerabilpeneko jardueren bitartez.
- 12.8 Hemendik 2030era, mundu osoko pertsonak beharrezko informazioa eta ezagutzak badituztela bermatzea, garapen jasangarrirako eta naturarekin harmonian egoteko bizi-estiloa edukitzeko.



Helburu horren ekintza klima-aldaketari eta haren efektuei aurre egiteko larrialdi-neurriak hartzera bideratuta dago. Klima-aldaketak kontinente guztietako herrialde guztiei eragiten die eta inpaktu negatiboa eragiten du haien ekonomian, pertsonen bizitzan eta komunitateetan. Klima-aldaketaren ondorenak etorkizunean okerragoak izango direla aurreikusten da. Eredu klimatikoak aldatzen ari dira, itsas mailak gora egiten ari dira, jazoera klimatikoak gero eta handiagoak dira eta berotegi-efektuko emisioak historiako mailarik altuenetan daude gaur egun. Ez badugu ezer egite, gure munduko gainazalaren batez besteko tenperatura 3 gradu zentigradu igo liteke mende honetan.

#### Zer jomugarekin dagoen lotuta

---

- 13.3 Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza ahalmena eta erakundeena hobetzea, klima aldaketa murrizteko, horretara egokitzeo, bere eraginak arintzeko eta garaiz ohartarazteko.



Helburu horrek honako hauetan jartzen du arreta: gizarte bakezale eta inklusiboak sustatzea, garapen jasangarria lortze aldera; herritar guztiek justiziarako sarbidea izango dutela bermatzea; eta erakunde arduratsu eta eraginkorrak sortzea maila guztietan. Gatazkaren baten eraginpean dauden herrialdeetan, lehen hezkuntzako eskola bertan behera utzi zuten haurren tasa ehuneko 50era iritsi zen 2011n; horrek esan nahi du 28,5 milioi haurrek utzi zutela eskola.

#### Zer jomugarekin dagoen lotuta

---

- 16.1 Nabarmen murriztea indarkeria-mota guztiak, eta horiei lotutako heriotza-tasak, mundu guztian.
- 16.2 Buru ematea haurren kontrako tratu txarrei, esplotazioari eta edozein motatako indarkeria eta torturari.
- 16.9 Hemendik 2030era, denok nortasun juridikoa izan dezagula ahalbidetzea, batez ere jaiotzak erregistratzearen bidez.





# #03

## Euskadiko Gazteria 2019. Egoera eta etorkizuneko erronkak



## 3. Euskadiko gazteria 2019

2017ko apirilean Gazteen Euskal Behatokiak<sup>1</sup> Euskadiko gazteen diagnostiko bat egin zuen, gerora Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana 2018-2021-eran erronkak eta helburuak ezartzeko erabili zena. Gazte Planak helburuak eta lehentasuneko esku-hartze ildoak ezarri zizkien hainbat gairi, eta horietan izandako aldaketa eta aurrerapenen jarraipena ahalbidetzeko, Behatokiak txosten honetan jaso ditu gai horien inguruan eskuragarri dauden azken datuak: testuinguru demografikoa, hezkuntza, enplegua, emantzipazioa eta etxebizitza, osasuna, gizarte-ekintza eta berdintasuna, parte-hartzea, aisialdia, kultura eta kirola.

### Joera demografikoak

#### Gazteek Euskadiko biztanlerian duten pisuak behera egin du

2018ko urtarrilaren 1ean Euskadin biztanleak 2.180.449 ziren; horietatik, 15-29 urte artekoak 287.274 ziren: % 50,9 gizonak (146.348) eta % 49,1 emakumeak (140.926).

Gaztetasun-indizeak, edo gazteen proportzioak, populazio osoarekin alderatuta, etengabe egin du behera Euskadin azken urte hauetan: 2003an % 20,2 zen, eta 2018an % 13,2ra jaitsi da. Balio horrek esan nahi du Euskadi gaztetasun-indize txikienetakoa duten Europako eskualdeen artean dagoela, eta kontuan izan behar da kontinente guztia nahiko zahartua dagoela: EB28ko batezbestekoa % 17,2 zen 2017an.


#### Behera egin du Euskadin bizi diren atzerritar gazteen kopuruak

Euskadin bizi diren gazteen % 14,5 atzerritarra da. Euskadiko biztanleria gazte atzerritarra nabarmen egin zuen gora 2001 eta 2011 bitartean: 3.365etik 45.933ra igaro zen aldi horretan; baina azken urte hauetan behera egin du, 2018an 36.920 izateraino. Beherakada horren zergatia da, alde batetik, atzerritik datozen gazteak gutxitu egin direla eta, bestetik, jatorri atzerritarrekoek beste leku batzuetara migratu dutela. Gainera, atzerritar batzuek Espainiako nazionalitatea lortu dute.

Aurreko beste diagnostiko batzuetan esaten genuen atzerritarren kolektiboak eragina izango zuela Euskadiko biztanleriaren zahartzea arintzeko, baina badirudi azken urteotan efektu hori murrizten ari dela.


Izatez, gaztetasun-indizeak atzerritarren artean izan duen bilakaerari erreparatzen badiogu eta Euskadiko biztanleria orokorrarenarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu bi kasuetan ehunekoez behera egin dutela azken 10 urteetan.

Euskadiko gaztetasun-indizearen bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen datuak oinarri harturik (Biztanleen Udal Estatistika)

Euskadiko gaztetasun-indize orokorraren eta atzerritarren gaztetasun-indizearen bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleen Udal Estatistika)

<sup>1</sup> Hemendik aurrera, Behatokia.

Edonola ere, gazteen proportzioa hamar puntu handiagoa da atzerritarren artean (% 24,3 eta % 13,2).

**Ugalkortasun-tasak behera egin du, eta lehen haurra izateko amaren batez besteko adina 30 urtetik gora dago oraindik ere**

Lehen haurra izateko amaren batez besteko adina 30 urtetik gorakoa izan da Euskadin azken 20 urteetan ia, 2000tik, eta 2017an erregistroetako daturik altuena jaso da: 31,9 urte.

Ugalkortasun-tasa da urte batean adin-tarte jakin bateko 1000 emakumeke jaiotzen diren haurrak. Euskadin, 15 eta 29 urte arteko nesken ugalkortasun tasa 26,3 da adin-tarte horretako 1000 emakumeke. Datu horrek, berez, ez du interpretazio handirik egiteko balio, baina behar bezala ebalua daiteke 2015ean EB28ko batez beteko balioarekin alderatzen badugu: 50,6koa zen, 15 eta 29 urte bitarteko 1000 emakumeke.

**Hezkuntza**

**Behera egiten jarraitzen du Euskadin eskola-uzte goiztiarrak**

Eskola-uzte goiztiarraren tasak neurtzen du 18-24 urte arteko biztanleriaren zein ehunekok burutu duen gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), eta ez duen inolako ikasketa edo prestakuntzarik egin. Bilakaera positiboa izan du azken urteotan, eta Euskadin 2006ko % 12tik 2017ko % 5,4ra jaitsi da. Mutilen eta nesken arteko aldea -2006an, mutiletan % 15, eta nesketan % 8,5 zen tasa hori- murriztu egin da, 0,4 puntukoa izateraino (% 5,6 mutilen artean eta % 5,2 nesken artean).


Zenbateko horrek egoera hobean ere ipintzen du Euskadi, Espainiarekin alderatuta (% 18,3) bai eta EB28rekin alderatuta ere (% 10,6).

**Goi-mailako hezkuntzako titulazio-tasa oso handia da Euskadin, eta % 50etik gertu dago 30 eta 34 urte arteko pertsonen artean**

30-34 urte artekoen goi-mailako hezkuntzako titulazio-tasa (unibertsitate-ikasketetan edo goi-mailako heziketa zikloetan) ia hamar puntu handitu da 2007 eta 2017 artean: % 38,7tik % 46,1era igaro da.


Urte hauetan gora egin du goi-mailako titulua duten gizon eta emakume gazteen ehunekoak; baina gizonen eta emakumeen tasak alderatzean, ikusiko dugu arrakala oso handia dagoela emakumeen alde; 2017an, 30 eta 34 urte arteko emakumeen % 57,2k eta gizonen % 36,1ek du goi-mailako titulu bat.

Euskadiko emakumeak ama bihurtzen diren batez besteko adinaren bilakaera, nazionalitatearen arabera (urteak)




ITURRIA: INE, Oinarrizko Adierazle Demografikoak

18-24 urte arteko gazteen eskola-uzte goiztiarraren tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT, (Europa 2020 adierazleak)

30-34 urte arteko gazteen goi-mailako hezkuntzako graduatze-tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT, (Europa 2020 adierazleak)


### Igoera txikia izan du euskararen ezagutzak 15 eta 29 urte arteko gazteen artean

15-29 urte arteko euskal gazteen % 69,3k dio euskaraz oso ondo edo nahiko ondo hitz egiten duela. Euskararen ezagutzak gora egiten du adinak behera egin ahala; horrela, 15-19 urte arteko gazteen % 81,3k dio euskaraz ondo edo oso ondo hitz egiten duela; 20-24 urte artean dituztenen kasuan ezagutza % 69,5era jaisten da; eta 25-29 urte dituztenen artean, % 59,1era.

### Euskadiko gazteen herenak hirueledunak dira

Euskadiko hirueletasun-tasa euskara, gaztelania eta ingelesa ongi hitz egiten duten gazte kopuruaren arabera kalkulatu da. Adierazle horrek gero eta balio altuagoak ditu, euskararen eta ingelesaren ezagutzak nabarmen egin duelako gora. 2016an, hirueleduna zen Euskadiko 15 eta 29 urte arteko gazteen % 34,6; 2004ko datuaren bikoitza.

### 15-29 urte arteko gazteen hirueletasunaren bilakaera, lurralde historikoen arabera (%)



Iturria: EUSTAT (*Bizi-baldintzei buruzko inkesta.*) eta Gazteen Euskal Behatokia (*Euskal gazteria 2016*)

## Enplegua

### Behera egin du gazteen jarduera-tasak: 2018an 16 eta 29 urte arteko pertsonen erdia baino gutxiago zeuden lanean edo lanerako prest

Gazteen jarduera-tasak lanean edo lanerako prest dauden 16 eta 29 urte arteko pertsonen ehunekoak neurtzen du. Tasaren jaitsierak 30 urtetik beherakoak prestakuntza-aldiaren luzapena islatzen du. 2018an, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiak baino gutxiago dira (% 47,7) biztanleria aktiboaren parte.

### Enplegu-tasak hazkunde motela baina jarraitua izan du azken hiru urteotan

Azken hamarkadan, beherakada nabarmena izan du lanean ari diren gazteen ehunekoak. 2006an gazteen % 54,9k egiten zuen lan, eta 2018an % 40,3raino murriztu da kopuru hori. 2013an erregistratu zen enplegu-tasarik txikiena (% 35,5), eta ordutik gaurdaino balio horrek ia bost puntu egin ditu gora.


2018an, oso antzekoa da gizonen eta emakumeen enplegu-tasa: gizon gazteen % 40,4k eta emakume gazteen % 40,2k egiten du lan.

Enplegu-tasak gora egiten du ikasketak-mailarekin batera. Lanean ari diren gazteen ehunekoak handiagoa da goi-mailako ikasketak dituztenen artean (talde horretan sartzen dira unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako Lanbide Heziketako zikloak egin dituztenak).

### Lanbide Heziketako ikasketen ondoko laneratzeak hobera egin du 2017an


2017an, aurreko urtean Lanbide Heziketako erdi- edo goi-mailako ziklo bat amaitu zuten pertsonen enplegu-tasa % 78,7 izan da, 2009tik erregistratu den daturik onena izanik.

### 16 eta 29 urte arteko gazteen eta 16 eta 64 urte arteko biztanleria osoaren enplegu-tasaren bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

### Lanbide Heziketako promozioen enplegu-tasaren bilakaera, ikasketak amaitu eta urtebetera (%)



Iturria: Lanbide (*2017an Lanbide Heziketa bukatu dutenen lan-munduratzeara. 2016ko promozioa*)

**Apur bat egin du behera enplegu-tasak unibertsitatea hiru urte lehenago amaitu zutenen artean**

2013ko unibertsitateko promozioeko pertsona landunen ehunekoa 74,3 da, ikasketak amaitu eta hiru urte beranduago, 2016an, egindako inkestaren arabera. Datu hori 2012ko promozioari buruz 2015ean lortu zen datua baino 5,6 puntu txikiagoa da, eta tasa hori 2014an egindako ikerketaren maila berean uzten du.

**2018an % 16,1 izan da 16 eta 29 urte arteko gazteen langabezia-tasa. Zifra hori espainiar gazteriari dagokiona (% 25,1) baino nabarmen txikiagoa da**

2018an % 16,1 izan zen, Euskadin, 16 eta 29 urte arteko gazteen langabezia-tasa. Langabezia-tasa populazio aktiboaren barnean zenbatesten da; hau da, lanean ari direnak edo lanerako prest dauden eta inkesta egin aurreko lau asteetan enplegu-bila ahaleginen bat egin dutenak aintzat hartuz.

Azken hamar urteetan, gazteriaren langabezia-tasa biztanleria osoarena bikoiztera ere iritsi da, baina 2015etik hona bien arteko aldea gutxitzen joan da.

2018ko azken hiruhilekoan, Euskadiko gazteriaren langabezia-tasa bederatzi puntu txikiagoa izan zen Espainia osoan baino (% 25,1).

**Gora egin du aldi baterako enpleguak, eta 2018an soldatapeko gazteen % 68,1i eragiten dio**


16-29 urte arteko gazteen % 68,1ek aldi baterako kontratua zuen, Euskadiko soldatapeko biztanleria osoaren % 30,7ren aldean. Tasa horrek 2009an izan zuen ehunekorik baxuena, krisiaren hastapenetan, bitxia bada ere; harrezkerotik, hazi egin da etengabe, eta 2018an serie osoko gailurrera iritsi da. Hazkunde hori modu orokorrean gertatu da biztanleria osoan, baina bereziki handia izan da gazteen artean.

**Lanaldi partzialeko enplegua egonkortu egin da, % 30era iristeraino, azken urteotan. Emakumeen artean zabalduego dago lanaldi partzialeko lana, gizonen artean baino**

Lanaldi partzialeko enplegu-tasak adierazten du zein den astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten 16-29 urte arteko gazte landunen ehunekoa; eta tasa horrek gora egin du 2018an, % 30,6 izateraino.

Lanaldi partzialeko enplegua zabalduego dago gazteen artean biztanleria landun orokorraren artean baino (% 17,7) eta, gainera, azken urteetan alde hori handitzen ari da.

**Unibertsitateko promozioen enplegu-tasaren bilakaera, ikasketak amaitu eta hiru urtera (%)**



Iturria: Lanbide, (2016an Unibertsitateko lan-munduratzeara. 2013ko promozioa)

**16 eta 29 urte arteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, sexuaren arabera (%)**



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

**Gazteen batez besteko soldata igo egin da 2017an, eta hileko 1000 euro ozta-ozta gainditzen ditu**

16 eta 29 urte arteko gazte landun baten batez besteko soldata garbia 1.093 eurokoa izan zen Euskadin 2017an. Emakumeen soldatak gizonenak baino txikiagoak dira, baina bien arteko aldea murriztu egin da 2017an.

**Gora egin du dagokien alorreko lana dutenen ehunekoa landunen artean: Lan egiten duten 10 gaztetik 6k diote beren enpleguak zerikusia duela beren prestakuntzarekin**

Gazte landunen % 60,1ek dio bere lanak lotura oso handia edo nahiko handia duela bere ikasketekin, emakumeek gizonen baino zertxobait gehiago.

**Laneko istripuek nabarmen egin dute behera azken hamarkadan**

16 eta 34 urte arteko landunen artean baja eragin zuten lan-istripuen kopurua, adin horretako 1000 landuneko, nabarmen jaitsi da 2006tik; edonola ere, igoera txiki baina jarraitua izan du 2015etik. 2017an, milako 41,7 zen tasa. Istripu-tasa handiagoa da gizonen artean (59,4/1000) emakumeen artean baino (22,1), hein handi batean gizonen presentzia handiagoa duten sektoreen nolakotasunagatik.

**Emantzipazioa eta etxebizitza**


**Euskadin gurasoen etxetik joateko batez besteko adina Europako altuenetakoen artean dago**

Euskadiko biztanleen batez besteko emantzipazio-adina 30 urtekoa da (29,6, zehazkiago), 15 eta 29 urte bitarteko gazteek emantzipatzeko egokitzat jotzen duten adina (23,6 urte, batez beste) baino sei urte gehiago. Batez besteko emantzipazio-adin hori Europako batezbestekoa baino lau urte handiagoa da (26).

**Emantzipazio-tasa % 37,9 da 18 eta 34 urte artekoen kolektiboan**


Edonola ere, adina zein den, alde handiak daude: 25 urteen aurretik Euskadiko gazteen % 5,7 bakarrik dago emantzipatua, 25 eta 29 urte artekoen % 37,5 bizi da bere kasa, eta 30 eta 34 urte arteko gehienak daude emantzipatuta (% 72,7).

16 urte edo gehiagoko biztanleria osoaren eta soldatapeko 16-29 urte arteko gazte landunen behin-behinekotasun tasaren bilakaera (ehunekotan)




Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

16-29 urte arteko gazteen lanaldi partzialeko enpleguaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

18 eta 34 urte bitarteko emantzipazio-tasa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

**Etxebizitzaren prezio altua eta baliabide ekonomiko propioak lortzeko zailtasunak dira emantzipatzeko arazo nagusiak**

2017an, 18 eta 34 urte arteko soldatapeko gazte batek, batez besteko soldata batekin, bere soldataren % 52,6 erabili beharko zuen bere kasa hipoteka-mailegu baten lehen kuota ordaintzeko (urte hartan kontratatutako hipoteka-kredituen batez besteko iraupena eta interes-tasak kontuan hartuta) merkatuko prezioan etxebizitza bat erosteko; horixe da jabetzako etxebizitzarako sarbide-kostua. Alokairuaren kasuan, hileko ordainketa are handiagoa izango zen, pertsona horrek soldataren % 69,3 erabili beharko bailuke alokairuko errenta ordaintzeko (alokairuko sarbidearen kostua).

**Alokairuaren aukera asko hazi da azken urteotan, gazteen emantzipazio-aukera nagusia izatera iristeraino**

Alokairuan emantzipatutako 18 eta 34 urte arteko gazteen ehunekoak nabarmen igo da azken hamar urteetan: 2006an emantzipatutako gazteen % 19 baino ez zen alokatutako etxebizitza batean bizi, eta 2017an kopuru hori % 55,3raino iritsi zen (2015eko balio bera).

**Behera egin du hipoteka edo alokairuko errenta ordaintzeko gaitasun ekonomikoak egiten ari diren gazte emantzipatuen ehunekoak**

2017an, 18 eta 34 urte arteko gazte emantzipatuen % 16,9k dio gaitasun ekonomikoan dagoela, hau da, etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago bideratu behar dituela hipotekaren kuota edo alokairua ordaintzera. Gaitasun ekonomikoan dauden gazteen ehunekoak murriztu egin da aurreko urteekin alderatuta.

Gainera, % 19k arazoak ditu etxebizitzaren gastu guztiak ordaintzeko, barruan sartuta ohiko gastuak (argia, gasa, erkidegoaren gastuak, etab).

Arazo ekonomikoak aurre egiteko, 18 eta 34 urte arteko gazte emantzipatuen % 6,1ek familiaren diruzko laguntza jasotzen du modu erregularrean, eta beste % 8,7k noizean behin.


**Osasuna**

**Gazte gehienek uste dute osasun ona dutela. Edonola ere, ia bostetik batek osasun-arazo kronikoak ditu, eta ia hamarretik batek antsietatea eta/edo depresioa du**

15 eta 29 urte arteko gazteen % 2,4k baino ez du uste bere osasuna gutxi gorabeherakoa edo txarra denik. Adierazle horren bilakaera positiboa izan da: 2002an % 5,8 zen, eta, egun, % 2,4.


Gazteen % 18,3k osasun-arazo kronikoren bat du, eta % 8,3k antsietate- edo depresio-sintomak izan ditu aurreko lau asteetan. Euskadiko emakume gazteen % 11,4k izan ditu halako sintomak, gizon gazteen balioak (% 5,1) halako

18-34 urte arteko soldatapeko batek hipotekaren kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko erabili beharko lukeen soldata-zatiaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

Alokairuan emantzipatutako 18 eta 34 urte arteko pertsonen ehunekoaren bilakaera



Iturria: EUSTAT (Inkesta Demografikoa) eta Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

Gaitasun ekonomikoan emantzipatu diren eta etxebizitzako gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten 18 eta 34 urte arteko pertsonen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)



bik, hain zuzen. Edonola ere, 2018an erregistratutako balioa serieko baxuena izan da.

**Hamar gaztetik zortzik baino gehiagok egiten dute jarduera fisiko osasungarria**

15 eta 29 urte arteko gazteen % 86,3k dio jarduera fisiko osasungarri ertain edo bizia egin duela aurreko astean. Gazteriaren jarduera fisikoak, kirola egite hutsa baino kontzeptu zabalagoa biltzen duenak, igoera progresiboa izan du: 2007an % 67,6 zen tasa; 2013an, % 75,3, eta 2018an, % 86,3.

**Bost gaztetik batek alkohol gehiegi edo modu arriskutsuan kontsumitu du inkesta egin aurreko hilabetean**

2017an, 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren % 20,3k alkoholaren gehiegizko kontsumoa edo kontsumo arriskutsua (65 gramo alkohol baino gehiago egun batean) izan zuen inkesta egin aurreko hilabetean. Kontsumo horrek serieko baliorik txikiena izan zuen 2017an. Alkoholaren gehiegizko kontsumoa edo arriskutsua izan zuten gizon gazteen zifra emakume gazteena baino askoz handiagoa zen 2017an (% 25,3 eta % 15,3, hurrenez hurren).

**Tabakoaren kontsumoak behera egin du, eta oraindik ere 15-74 urteko biztanleriaren batezbestekoaren azpitik dago**

15 eta 29 urte arteko bost gaztetik batek ia erre ohi du tabakoa (% 18,5), mutilek neskek baino zertxobait gehiago (% 18,9 eta % 18,2, hurrenez hurren). 2006 eta 2017 artean hogeita puntu baino gehiago jaitsi da ohiko tabako-erretzaileak direla dioten gazteen ehunekoak. Ehuneko hori 2006an % 40,4 zen, eta 2017an % 18,5era jaitsi da.

**15 eta 29 urte arteko gazteen % 3,7k arrisku-portaera du jokoari dagokionez**


Ehuneko hori igo egin da 2012. urtearekin alderatuta, orduan % 2,1ekoa baitzen. Osasunerako arriskutsuak diren beste jokabide batzuetan bezala, gizonen ehunekoak emakumeenak baino handiagoak dira (% 6,5 eta % 0,8, hurrenez hurren).

**Egonkor jarraitzen du nerabeen haurdunaldi-tasak**

Nerabeen haurdunaldi-tasa urtebetean 15 eta 17 urte arteko neska nerabeen artean izandako jaiotza kopurua eta haurdunaldiaren borondatezko eteteak batuta kalkulatu da, adin-tarte horretako 1000 emakumeko. 2016an, milako 6,7 izan da. Tasa horrek ere beheraldia izan du 2012tik: orduan milako 9,7 izan zen.

**Gizarte-ekintza eta berdintasuna**

**15 eta 29 urte bitarteko gizon eta emakume gazteen antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentziaren bilakaera (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta 2018)

**Aurreko hilabeteko egunen batean gehiegizko alkohol-kontsumoa edo kontsumo arriskutsua izan duten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Euskadi eta Drogak seriea eta Adikzioen Gaineko Inkesta)

**15 eta 29 urte arteko ohiko erretzaileen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Euskadi eta Drogak seriea eta Adikzioen Gaineko Inkesta)

**Gazte gehienek familiarekiko mendekotasun ekonomikoa dute, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen laurdenek baino ez diote ekonomikoki independenteak direla**

